

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

58 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Sortu eta Ahal
Dugu-Podemosen
ekintza batasuna
eskuinari
aurre egiteko!!**

**Programa
sozialistaren
defentsa!!**

2. Editoriala: Sortu eta Ahal Dugu-Podemosen ekintza batasuna eskuinari aurre egiteko!! Programa sozialistaren defentsa!! - 4. Errefuxiatuekiko "elkartasun europarraren" benetako aurpegia. 2016ko irailtik abendura bitartean 159 pertsona bakarrik kokatu dituzte! - 6. Catalunya: Askapen nazionalari BAI! Eskuin nazionalistaren eskutik joateari EZ! - 8. Venezuela abenduaren 6ko hauteskundeen ondoren. Langile eta herri boterea garatu kapitalismoarekin eta burokraziarekin amaitzeko - 12. Txile: Ikasle txiletarren borrokak unibertsitatea dohainik izatea lortu du. Borrokak merezi du, borrokak balio du! -14. Federiko Engels Fundazioaren berrargitalpen berria: V. I. Leninen "El imperialismo, fase superior del capitalismo"

Sortu eta Ahal Dugu-Podemosen ekintza batasuna eskuinari aurre egiteko!!

Programa sozialistaren defentsa!!

Abenduaren 20an burgesia espainiarrak ez zuen lortu bere helburua: PP eta Ciudadanosek osatutako eskuineko blokeak gehiengo lortzea. Aldiz, Ahal Dugu-Podemosek emaitza onak lortu zituen. Hauteskunde hurrengo egunetik PP eta burgesiaren ordezkariak PSOEko agintari sozialdemokratengana zuzendu ziren Koalizio Handia sortzeko asmoz. PSOEren ezkerretara dauden alderdiek jasotako milioika langile eta gazteren botoek, ordea, burgesiak datozen garaietan bere asmo guztiak aurrera eramateko arazo handiak izango dituela erakusten dute.

A benduaren 20ko hauteskundeek aldaketa sakona eragin zuten aurreko urteetakoekin konparatuta. 2008an PSOE eta PPren botoak %84raino iritsi ziren eta 2011n %73ra. Hauteskunde hauetan, berriz, gutxigatik gainditu zuten %50a. PPk eta PSOEek behe-rantz egingo zutela aurreikusita eta Ahal Dugu-Podemosen arriskuaz jabetuta, burgesiak eta bere komunikabideek Ciudadanosen alde egin zuten apustu, baina ez zuten lortu inondik inora PPk galdutakoa Albert Riveraren alderdiak jasotzea.

PSOEek ere nabarmen egin zuen behera azken legegintzaldian oposizioan egon arren. Bere historiako emaitza txarrenak izan zituen 1,5 milioi bozka emaile eta 20 eserleku galduz 2011tik. PSOEko sozialdemokraziaren krisia kapitalismo espainiarraren krisi orokorraren beste sintometako bat da.

Ahal Dugu-Podemosek eskuratu-tako emaitza garrantzitsuetan, nabarmentzekoak dira Catalunyan, Galizan eta Euskal Herrian bertan lortutakoak. Catalunyan garaipen historikoa lortu zuten En Comu Podem koalizioaren bitartez (Podemos, Barcelona en Comú, Iniciativa per Catalunya Verds, Equo eta Esquerra Unida i Alternativa erakundeek osatutakoa). Bere erreferente nagusi

Ada Colau izanik, Ezkerreko Fronte honek potentzialtasun handia erakutsi du murrizketen aurka eta autodeterminazio eskubidearen alde posizionatuz. Galizan En Marea koalizioak (Anova, Esquerda Unida, Podemos eta Mareak erakundeek osatua) lortutako bigarren postua ere bikaina izan zen.

Euskal Herriko emaitzak eta ondorioak

Bi datu esanguratsu izan ziren Euskal Herrian: Ahal Dugu-Podemosen alderdi bozkatuena izatea eta EH Bilduren beherakada 2011ko hau-

teskondeekin alderatuta bere botoen herena galduz. Ahal Dugu-Podemosen lehen indar atera zen Gipuzkoan (bozken %25,3rekin) eta Araban (%27), eta bigarren Bizkaian (%26,1) eta Nafarroan (%22,99). Hirietako auzoetan eta herri handietan boto emaile asko joan zen bere bozka Ahal Dugu-Podemosen ematera: Gasteiz (27,51%), Laudio (28,04%), Bilbo (25%), Basauri (28,34%), Erandio (31,76%), Leioa (30%), Abanto, Barakaldo (32,1%), Portugalete (30,53%), Santurtzi (32,18%), Sestao (33,22%), Donostia (25,78%), Irun (32%), Andoain (29,4%), Arrasate (25,48%)...

EH Bilduk bozka asko galdu zituen, eta horietako asko Ahal Dugu-Podemoserako joan ziren zalantzarik gabe. Emaitza hauek ezker abertzaleak azken urteetan egin-dako politikari daude lotuta: politika instituzionalean zentratzea herri honen sufrimenduen arduraduna den EAJri etengabe indarrak elkartzeko dei eginez; EArekin koalizioa osatzearen truke EH Bildu koalizioak bere programan sozialismoa edo amnistia bezalako aldarrikapen





historikoak ez defendatzea; langileen kaleratzeen, murrizketa sozialen, etxe kaleratzeen, langabeziaren edota pobreziaaren aurkako mobilizazio eta alternatiba eraginkorren gabezia...

Zalantzarik gabe, positiboa izan zen Sortuko zuzendaritzak Ahal Dugu-Podemosi hauteskunde hauetara elkartuta aurkezteko proposamena. Ezin dezakegu berdina esan aukera honi ezezkia eman zioten Ahal Dugu-Podemosen arduradunei buruz. Ikusi besterik ez dago nolako datuak ateratzen diren bi indar hauen emaitzak batuta: Gipuzkoan %46ra iristen da, Araban %39ra, Bizkaian %38ra eta Nafarroan %32,89ra. Datu benetan ikusgarriak dira.

Hemendik atera daitekeen ondorioa garbi dago: Euskal Herriko langile klaseak eta gazteriak eskuinak, hau espainiarra edo euskal herritarra izan, inposatzen duen amesgaiztoari amaiera eman nahi diote. Horregatik, funtsezkoa da Sortu eta Ahal Dugu-Podemosen arteko ezkerreko frontea sortzea eta programa iraultzaile bat defendatzea askapen nazionalaren eta sozialaren alde borrokatzeko eta langileen, gazterien eta sektore zapalduen gehiengo irabazteko; modu honetan, Estatu mailako eta Europako klaseko anai-arrebekin batera gizartearen

erlaldaketa sozialistaren eginkizunari ekiteko.

Instituzioak, kaleetako borroka eta programa sozialista

Pablo Iglesiasen alderdiak baldintza batzuk proposatu zizkion hasieratik Pedro Sanchez gobernu akordio posible baterako: "eskubide sozialen blindajea", hauteskunde sistemaren erreforma, Catalunyako erreferenduma, LOMCE eta Lan Erreforma ezabatzea... Neurri hauek guztiak positiboak dira, baina inolaz ere ez dira nahikoak azken lau urteetan kontraerreformek eragindakoari aurre egiteko eta gehiengoaren bizi baldintzak defendatzeko.

Ahal Dugu-Podemosen zuzendaritzak ardura handia dauka Estatuko egoeran. Eskuina garaitzeko funtsezko bi zutabe hartu beharko lituzke kontuan: mobilizazio soziala bultzatzea eta kaleak hartzea herri-tarren aldarrikapenak eztabaida politikoko lehen lerroan jartzeko, eta borroka egiten duen ezkerren indarrak elkartzea.

Gorago aipatu dugu bezala langile klaseak eta gazteriak garbi utzi dute gizartea aldatzeko borondatea. Hori da abenduaren 20ko hauteskundeetatik egin behar den irakurketa. Baina Madrilgo Kongresua,

edo beste inongo instituzio, ez da izango aldaketaren motorra. Milioika pertsonari eragiten dieten erabakiak monopolio handietako eta banku handietako administrazio kontseilueta hartzen dira, eta hauek ez dira inongo hauteskudetatik aukeratu, baina errealtateak erakusten du beraien eskuetan dagoela benetako boterea. Greziako ikasgaiek eta Tsiprasen kapitulazioak agerian utzi dute beste behin egia handi hau. Ondorioak atera behar dira iraganeko esperientziatik. Ezin da lortu benetako aldaketarik sistema kapitalistaren logika onartzen bada, masen mobilizazioari uko egiten bazaio. PPK inposatutako lege atzerakoia ezabatu eta zapalduen eskubideen aldeko borroka elkartuko dituen programa behar da, gizartearen erlaldaketa sozialistaren aldeko programa. Bustitzeko garaia da, klase dominatzailearen aurka epelkeriarik gabe posizionatzeko garaia, banku eta multinazionalen boterearen aurka tinko borrokatzeko garaia.

Eskuina garaitzeko: kaleak hartu eta programa sozialista defendatu!!
Antolatu zaitez Euskal Herria Sozialistan ideia hauek defendatzeko!!

Errefuxiatuekiko “elkartasun europarraren” benetako aurpegia

2016ko irailetik abendura bitartean 159 pertsona bakarrik kokatu dituzte!

Errefuxiatuen etorrera masiboari Europar Batasunak emandako erantzuna zinismoz eta hipokrisiaz beteta egon da. Negar malko faltsuak bota eta “giza tragedia” honengatik deitoratu ondoren, gobernuetako agintariak eurek dakiten moduan erantzun dute: eskuzabal eta elkartasunez hartu beharrean, konzentrazio esparruak eraiki dituzte, labanez betetako hesiak jarri dituzte, izuturik dauden milaka pertsona bortizki erantzuten duen poliziarekin inguratu dituzte; eta, gainera, korrika batean Europako agintariak sortu dituzten basakerien biktimak masiboki bidaltzeko legeak onartu dituzte.

URTZI REGUERO

Turkia eta bere erregimen despotikoa diruz lagundu dute bere mugak itxi eta errefuxiatuen etorrera masiboa saihesteko. Hau gobernuen “humanitarismoaren” erakusgarri da. Basakeriatik urrun bizitzeko leku baten bila dabilen gizon, emakume eta haurrek badakite nola erantzuten duen “Europa zibilizatuak”. Modu tinko eta gardenean, erregimen kapitalistak, beste behin, bere ustelkeria erakutsi du.

Europar Batasunaren aurpegi “humanitarioa”

Duela hilabete gutxi, Europar Batasunak, bere mugen barruan, 160.000 errefuxiatu kokatzea onartzen zuen programa bat jarri zuen mahai gainean, eta gainera errefuxiatu politiko izaera hartuko zuketena. Zifra hau irigarria da, kontuan hartzen badugu Europara 700.000 pertsona baino gehiago iritsi direla, batez ere Italiako eta Greziako kostetatik. Eta

hau icebergaren punta besterik ez da, hoguei milioi errefuxiatu eta 60 milioi lekualdatu baitaude gaur munduan. Edonola ere, errealitateak txiki utzi du aurreikuspenik okerre-na. Abendu hasieran jakin genuen 159 pertsona bakarrik kokatu dituztela; prozesuak hala jarraitzen badu, 159 urte beharko dira hasieran aurreikusitako 160.000 horiek kokatzeko.

Asteak joan eta asteak etorri, etengabe entzun ditugu “elkartasun” eta “giza eskubideei” buruzko hitzak

Angela Merkel eta Hollande bezalako europar agintarien ahotan. Hala ere, iraila eta abendu bitartean, Alemanian 11 errefuxiatu eman zitzaizkien asiloa, frantziar estatuan 19ri, espainiar Estatuan 12ri, Suezian 39ri eta Finlandian 48ri (guztiak zetozen Italiako konzentrazio esparruetatik). Luxemburgok Grezian 30 hartu ditu. Gainera, lotsarik gabe, zifra iraingarri hauek agur arranditsuekin ospatu zituzten; adibidez, Atenasen ospakizun bat antolatu zuten aireportuan, eta Alexis Tsipras lehen ministro greziarra, Martin Schulz Europako Parlamentuko presidentea eta Luxemburgoko atzerri ministroa bertaratu ziren, besteak beste.

Dena dela, aurrekoa lotsagabe eta zentzugabea bada ere, Europar Batasuneko herrialdeek iraila eta azaroa bitartean 762 pertsona beren jatorrizko herrialdeetara (Kosovo, Albania, Georgia edota Nigeria) bidali zituzten. Zifra altuagoa izan-go litzateke Pakistanek EBrekin duen itzulketa akordioa eten ez ba-





lu eta Atenasetik Islamabadera 30 pakistandar zeramatzan hegazkina buelta ematera behartu izan ez balu.

Kriminalizazioa eta errepresioa

Hau da Europako agintarien benetakoa aurpegia. Kosta ahala kosta, errefuxiatu gehiago etor daitezen eragotzi nahi dute, eta horretarako beharrezko diren baliabide guztiak erabiltzeko prest daude. Aurreko datuak ezagutzera eman zituzten egun berean, David Cameron Britainia Handiko lehen ministroak Bulgariako lehen ministroa zoriondu zuen Bulgaria eta Turkia bereizten dituen 33 km-ko harresia eraikitzeagatik eta 120 km-ra luzatzeko asmoa izateagatik. Cameronek azpimarratzen zuenez, “egin dutena gazi honi lehen-tasuna ematen zaionean lor daitekeena erakusten duen benetakoa ikasgaia da. Hori dela eta, gure babes osoa izango dute”. Gobernu honen balentrien artean daude etorkin afganiar bat hiltzea fageozko bala batekin; gainera poliziak salaketa ugari jaso ditu etengabe muga igaro nahi duten etorkinen aurkako gehiegizko indarkeria erabiltzeagatik.

Hori gutxi ez eta Parisko atentatu bortitzak kriminalizazio politika are gehiago sustatzeko erabiltzen jarraitzen dute; errefuxiatuak terroristak direlako ideia faltsuak ari dira hedatzen, nahiz eta errefuxiatuak Parisko sarraskia eragin zutenen-

gandik ari diren ihes egiten. Gainera, ez dago inongo ebidentziarik erakusten duenik terrorista bakar bat ere errefuxiatuekin sartu dela.

Frantziar estatuko lehen ministroak duela gutxi esan zuen Europak ezin dituela errefuxiatu gehiago onartu, hori ezinezkoa dela, eta Europako mugak zorrotz zaintzea aldarrikatzen zuen. Proposamen hau erabat babesten dute Alemaniako Gobernuak eta Europar Batzordeko Jean-Claude Junckerrek; azken honek Batzordearen proposamen bat iragarri zuen zeinetan egungo FRONTEX (Europar Batasuneko Estatuetakoko Kanpo Mugak Kudeatzeko Europako Kooperazio Operatiboko Agenzia) ordezkatzeko lukeen kostazain eta mugazain taldeak sortzea proposatzen zen. Talde berri honek herrialde batetik bestera mugitzeko eskumena izango luke “gabezia larri edo iraunkor” bat balego Batasuneko kanpo muga kontrollean; era berean, etorkinek erabil ditzaketen itxas bideak zaintzeaz arduratuko litzateke. Zalantzarik gabe, Europako atean joka ari diren milaka errefuxiatuen aurkako gerra adierazpena eta Batasunaren barnean “mugitzeko askatasunaren” aurkako erasoa da.

Asmo bera du, Angela Merkelek gidatuta, Turkiarekin hitzartutako akordioak. Erdoganaren erregimenak —bere ohiko metodo ‘demokratikoe-kin’— errefuxiatuak bertatik atera eta Europara sar daitezen saiheste-

ko 3.000 milioi jaso ditu eta Turkia EBn sartzeko prozesua azkartu da. Gobernu kriminal honi emandakoa are nazkagarriagoa eta higuinagarragoa da kontuan hartuta Erdogan turkiar presidentea ISISen eta Siriako eta Irakeko beste talde jihadistien sostengu nagusietakoa dela. Diruz laguntzen ditu eta bere herrialdea haien ekintzen base operatibo gisa erabiltzen uzten die. Bitartean herri kurdua erasotzen eta masakratzen jarraitzen du.

Europako eta munduko potentzia inperialistetako agintariek behin eta berriz erakutsi dute gerra eta miseriari ihesean Europan babes bilatzen duten milaka eta milaka errefuxiatuen etsai direla. Eta etsaiak dira arrazoi nagusi batengatik: Gobernu hauek berberak sustatu dituzte errefuxiatuen herrialdean hondamendi eta suntsiketak, Afrika eta Ekialde Hurbila arrasatzen dituzten eraso inperialisten arduradunak dira. Duten alternatiba bakarra orain arte bezala jarraitzea da, gerra berriak eragitea eta kapitalista handiak onuradun nagusi dituzten gatazkak sortzea. Guk, langileok, gazteok, Siriako, Irakeko, Afganistango, baina baita Europakook, jartzen ditugu hildakoak eta ordaintzen ditugu ondorioak. Hori dela eta, errefuxiatuak eta Europako langileak baskeriaren aurkako borroka berberean gaude: kapitalismoaren, inperialismoaren eta eurek sortu duten terrorismoaren aurkako borrokan.

Catalunya: Askapen nazionalari BAI! Eskuin nazionalistaren eskutik joateari EZ!

Hilabeteak negoziatzen igaro ondoren, CUPeko zuzendaritzak babesa eman dio Convergenciari Catalunyako gobernua osatzeko. Kapitulazio hau “independentziaren aldeko prozesuarekin” eta “Artur Mas presidente izatetik kentzearekin” justifikatu da, baina errealtatea oso desberdina da. CUPen zuzendaritzak babesa eman dio murrizketa berriei eta langile klasearen aurkako erasoekin jarraitu nahi duen burgesia kataluniarraren alderdiari. Eta beharrezkoa da beste behin garbi uztea: eskuin kataluniarrak, independentzia edo autodeterminazio eskubidea, demagogia egiteko bakarrik erabiltzen ditu horrela bere boterea eta pribilegioak mantentzen jarraitzeko.

IBON ARTOLA

Klaseko kolaborazioaren alde posizionatuta dauden CUPeko agintariak mota guztietako maniobrak egin dituzte akordioaren alde. CUPeko Kontseilu Politikoan “EZ definitiboa” onartu ondoren Antonio Bañosek (Parlamenturako CUPeko zerrendaburua) bere dimisioa aurkeztu zuen eta sektore eskuindarrenak barkamena eskatzen hasi ziren, modu lotsaga-

rrian, Artur Mas ez inbestitzeagatik. Guzti honi ANC zuzentzen dutenen eta beste hainbat erakunderen kanpaina gehitu zitzaion Ezezkoren aldeko CUPeko militantziari “komunista”, “españolista”, “CNIko infiltratu” edo “iraultzaile” deituaz. CUPeko militantzia eta oinarri soziala presionatzeko eta Junts pel Sí-rekin akordioa lortzeko kanpaina hau ia ezkutuan egin diren negoziaketekin batera eman zen. Erabaki garrantzitsuak hartu

behar direnean, “batzarrak” politika burgesaren forma antidemokratikoenekin ordezkatzeko dira!

Artur Mas eta Junts pel Sí-k CUP umiliatu dute

Akordioa lortu ondoren, Artur Mas-ek prentsaurrekoa eman zuen Generalitatean egoera berriari buruz informatzeko. Garbi esan zuen bezala, Mas ez da politikatik aterako, eta Gobernuan egon edo ez erabakigarria izango da oinarritzko erabakietan. Noski, Mas presidentetzatik erretiratzea trago garrantzua da beretzat, baina askoz okerragoa zen Convergenciarentzat martxorako huteskunde berriak deitzea. Masen alderdiak oso emaitza txarrak izan zitzaizkeen. Horregatik, Mas pozik eta triumfalista azaldu zen, akordio honek burgesia kataluniarrari suposatzen dion arrakastagatik eta CUP-ek akordioan orain aipatuko ditugun puntuak onartzea lortzeagatik.

Akordioari esker Catalunyako presidente Cales Puigdemont izango da, Gironako alkatea eta Artur Masen zerbitzari leiala. Baina akordioaren gauzarik larriena CUPeko agintariak onartutako baldintza umiliagarriak dira: CUP-ek uko egiten dio bere politika propioa aplikatzeari eta Junts pel Sí-ren aginduetara geratzen da.

Akordioaren arabera, CUPeko agintariak behartuta daude “prozesu independentistaren aurka dauden talde parlamentarioekin batera ez bozkatuzera parlamentuaren edo gobernuaren estabilitatea arriskuan dagoenenean”. Horrela, gobernuaren estabilitatea mehatxatzen duen edozein iniziatiba, aurrekontuak eta murrizketak barne, onartua izan beharko da. Azken finean, CUPeko parlamentariak ez dute izango boto askatasunik eta Junts pel Sí-ren, hau





da Convergenciaren, menpe gertuko dira. Baina honi beste gauza ikaragarri bat gehitu behar zaio: CUPek bi diputatu eman dizkio Junts pel Sí-ri hautskundeetan lortu ez zuen gehiengo absolutua izateko. Erabateko iruzurra CUPeko bozka emaila eta militante askorentzat.

Hau dena gutxi ez balitz, CUPeko agintariak akordioan barkamena eskatzea onartu dute “independentziaren aldeko prozesua arriskuan jartzeagatik” eta “Junts pel Sí-ren aurka azaldutako jarreragatik”. Gainera, CUPeko agintariak talde parlamentarioa “behar adina aldatzea” onartu dute “etapa aldaketa eta prozesu negoziatzaileko kudeaketako beren autokritika bizualizatzeko”. Artur Masek, akordioaren ondoren egindako prentsaurrekoan oso gustora esan zuen honakoa hitzez hitz: “algunos diputados y diputadas de la CUP tendrán que renovarse para hacer explícitos estos errores de la CUP”. Benetan sinestezina! Mas eta Convergenciak ez dute sekula horrelako ezer egin murrizketa basati eta kriminalengatik, Pujol familiaren ustelkeriagatik, %3ko komisiorengatik, PPrekin batera lan erreforma bezalako akordioak aurrrera ateratzeagatik edo errepresio ankerragatik, baina CUPi inposatu egin diote, eta honek gainera onartu egin du.

Burgesiak eta bere ordezkariak ez dute arazorik beren formetan edo bigarren mailako aspektuetan “kon-

tzesioak” egiteko, horrela beren botere politikoarekin eta ekonomikoarekin jarraitzen badute. Azken finean, jokoan dagoena nork agintzen duen da: Pujol, Mas edo Puigdemont-ek, hau da, Convergenciak eta betikoek, edo azken urteetan Catalunya kaleetan borrokan aritu diren langile eta sektore zapalduak. Artur Mas berak prentsaurrekoan esan zuen bezala, akordio honen helburuak estabilitatea eta gobernabilitatea dira, hau da, murrizketa politikekin eta klase dominatzailearen aldeko neurriekin jarraitzea.

Ada Colau eta CUPek indarrak elkartzeari BAI!

Convergenciaren eta Masen helburua denbora irabaztea da azkeneko hautskundeetan lortutako emaitza txarren ondoren. Abenduaren 20ko hauteskunde orokorretan eskuin espainolistak oso emaitza txarrak izan zituen Catalunyan, baina baita Convergenciak ere. Bere botoemaileen erdia galdu zuen Artur Masen alderdiak, ia 600.000 bozka, 16 diputatutatik 9ra pasaz. Burgesia kataluniarrak, eta konkretuki bere aparatuko politikoak, Convergenciak, Catalunyan eskubide demokratiko-nazionalak erabiltzen eta manipulatzeko jarraitzea nahi du, helburu bakar batekin: bere posizio dominatzailea, bere negozioak eta bere pribilegioak bermatu. Horregatik, Convergenciaren politikaren ondorio gogorrak su-

fritu dituzten Catalunya langile, gazte eta sektore zapaldu askorentzat desilusio handia da CUPeko agintariak Artur Masen alderdiari emandako babesa.

CUPeko agintariak hartutako erabakiak ondorio larriak ditu: burgesia kataluniarraren posizioa indartzen du juxtu egoerarik ahulene-takoan aurkitzen zenean, eta eskuinerantzko joera suposatzen du, CUPeko kide asko Ada Colauekin aliatzearen alde posizionatu ondoren. Martxorako hauteskundeak deitu izan balira, eta CUP eta Ada Colaren En Comu Podem-ek beren indarrak elkartu izan balituzte emaitza ikaragarriak lortzeko aukera irekiko zitzakeen.

Baina zoritxarrez, CUPeko agintariak Grezian Tsiprasek egindakoaren antzekoa egin dute. Une erabakigarrietan, klaseko interes konkretu batzuen alde posizionatu behar da, edo langile eta zapalduekin, edo kapitalistekin (hauen ordezkariaren izena bat edo bestea izan). Antikapitalismoari buruzko adierazpen eta diskurtsoak gutxi balio dute egunerokoan eta une erabakigarrietan politika sozialista eta internazionalista defendatzen ez bada. Zertarako balio du hizkera “erradikalak” ondoren betiko ekuinaren zerbitzura jartzen bazara?

Inoiz baino beharrezkoagoa da benetako politika iraultzailearen bideari jarraitzea. Eta beharrezkoa da Catalunya eskuinaren gobernuaren aurka borrokatzea, planteatzen duen edozein murrizketari aurre eginez eta bereziki azken urte hauetan herritarrek sufritu dituzten neurri guztiak atzera botatzeko eskatuz. Eta noski, beharrezkoa da, auzi nazionalari dagokionez ere, Convergenciaren eta burgesia kataluniarraren benetako aurpegia zein de azaltzea, beren demagogia agerian uztea eta Catalunya eskubide demokratiko-nazionalen aldeko benetako borroka antolatzea. Ez da posible Convergenciaren beste lau urteko gobernu bat onartzea! Askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka elkarri lotuta daude eta burgesiarekin egindako inolako akordioak ez dio ekarriko askatasunik Catalunyar.

Venezuela abenduaren 6ko hauteskundeen ondoren Langile eta herri boterea garatu kapitalismoarekin eta burokraziarekin amaitzeko

Pasa den urteko abenduaren 6an MUD koalizioan bildutako eskuin kontrairaultzaileak Venezuelako hauteskunde legislatiboak irabazi zituen. Urtarrilaren 5ean martxan jarri zen Batzar Nazionalako 163 eserlekuetatik eskuinak 112ko gehiengoa dauka. MUD erabakitzen eta proposatzen ari den lehendabiziko gauzek erakusten duten bezala, garaipen hau heriotza arriskua da langileentzat eta herriarentzat. Azken 17 urteetan eskuratu diren eskubide eta lorpen guztiak mehatxatuta daude.

CMR VENEZUELA

Sektore burokratiko eta erreformistak abenduaren 6ko porrota masen errua izan dela diote. Herriaren traizioaz eta Chavez egindako traizioaz hitz egiten ari dira. A zer zinismoa!! Horrelako adierazpenak egiten dituztenek ez daukate zerikusirik benetako iraultzailearekin, beraiek porrotean duten arduragordetzeko bakarrik egiten dute.

Abenduaren 6an botoa eman genuen langileak eta herritarrak izan gara aurreko 18 hauteskundeetan chavismoaren garaipena bermatu genuen berberak, behin eta berriro kalera atera ginenak iraultza defendatzera. Baina milioika pertsona nekatuta daude sozialismoa edo gerra ekonomikoa aipatzen dituzten diskurtsoez, burokratismoa eta ustelkeria daudela onartzen dituztenak barne, ondoren izurrite hauekin bukatzeko neu-

rriak hartzen ez diren bitartean. Milioika dira nazkatuta eta haserretuta daudenak hitz jario parlamentarioekin eta eguneroko errealitatearekin kontraesanean sartzen diren adierazpen demagogikoekin: kapitalistek negozio handiak egiten jarraitzen dute dibisekin eta oinarritzko produktuekin, eta beren buruak sozialistatzat eta bolivartartzat aurkezten dituzten burokrate askok negozio hauetan hartzen dute parte. Nortzuk dira, orduan, iraultzaren benetako traidoreak?

Hauteskunde porrotaren arrazoiak

Orain dela bi urte PSUVek udal hauteskundeak irabazi zituenean, zuzendaritzak nahiago izan zuen garaipena ospatzea, eta beste aldera begiratzea abisu garrantzitsu bat ematen zuten emaitzak aztertu beharrean. Une hartan, etxetresna elektrikoan, herramintan, arroparen eta beste produktu batzuen prezioak erregulatzea bezalako neurri mugatu eta partzialak jendea bozkatzera animatu zuen azken orduan (batzuen ustez ezkerrentz joateko lehen pauso bat izan zitekeen). Hala ere, aurreko hauteskundeetan iraultzaren alde bozkatu zuten 2 milioi pertsona inguruk abstentziora jo zuten. Urte horretako presidentzialetan oposizioari botoa eman zioten beste 2 milioi bozka emailere abstenitu egin ziren. Orduan azaldu genuen bezala, datu haiek erakusten zuten gizartean zegoen ondorez sakanak abstentzioa puzten zuela, baina gobernuak egindako politikaren arabera botoak errekupeatu edo oposiziora joatea eragin zezakeela.

Baina beharrezkoak ziren neurri iraultzaileak ez ziren hartu, eta arazoak handitu egin dira maila jasan ezin jararaino. Chavez inoiz bozkatu





zuten milioika pertsona desilusionatuta daude orain. Lehen aldiz bozkatzzen zuten gazte asko hauteskunde hauetan abstentziora edo MUD koalizioari botoa ematera joan dira. Gazte hauek ez zuten IV. Errepublikaz ezagutu, baina sozialismoaz eta justizia sozialaz hitz polit asko entzun dituzten bitartean inflazioa, oinarritzko produktuen eskasia, segurtasun falta, ustelkeria eta burokratismoa bizitu dituzte.

Nola garaitu estrategia kontrainraultzailea

Burgesiaren helburua Batzar Nazionalako gehiengoa erabiltzea da gobernu bolivartarrari xantaia egiteko eta hau estutzeko. Neurri iraultzaileak alde batera uztea eta murrizketak egitera behartzea nahi dute, Maduroren gobernuaren oinarri sozialaren desgasteaz baliatuta Miraflores Jauregi Presidentzialerako asaltoa prestatzeko. Honetarako, beren interesen arabera taktika ezberdinak konbinatzen dituzte. Sabotaje ekonomikoa eta iraultzaren aurkako kanpaina mediatiko internazionala antolatzen dituzten bitartean, burgesiaren ordezkari batzuek elkarriketarako eta negoziatziorako deia

egiten dute. Hala ere, argi eta garbi dago zein den beren benetako aurpegia. Enpresariak dagoeneko eskatu diote Batzar Nazional berriari Etxebizitza Legea (besteak beste, etxe kaleratzeak debekatzen ditu), Prezio Justuen Legea edo Lanaren Legea (kaleratzeak zailtzeko neurri legalak biltzen ditu langileen aldeko beste hainbat aspektuekin batera) bezalako legeak eta lorpen iraultzaileak ezabatzeko. Batzar Nazionalako presidente berria, Ramos Allupe, Batzarreko telebista kateko langileak kaleratzea planteatzera iritsi da hauek ideia chavistak dituztela argudiatuta. Honekin batera, Batzarreko Chavezen eta Bolivarren irudiak kentzea agindu du, oinarri iraultzailearen haserre eta mobilizazio espontaneoak eraginez.

Iraultzaren aurkako gorroto errebantxista honez gain, MUDeko agintariak ez dute inolako alternatibarik herrialdea krisi ekonomikotik ateratzeko. Neurri handi batean beraien sabotajea izan da egoera hau eragin duena, baina bereziki sistema kapitalistaren krisi orokorra eta historikoki burgesia venezuelarrak izan duen izaera parasitarioa dira arduradunak. Batzar Nazionalan edo etorkizunean Mirafloresko Jauregi-

ra iritsita izango dituzten errezeta bakarrak murrizketak, erasoak eta errepresioa dira, beste herrialde latinoamerikarretan edo Europan langileek sufritzen dituzten berdinak edo okerragoak.

Oinarri iraultzaileetan ederki ulertzen da egoera hau, eta hauteskunde porrotak haserre, kritika eta eztabaida sutsua piztu ditu. Abenduaren 6aren ondorengo egunetan langileen, militanteen eta oinarriko kolektibo iraultzaileen bilera eta batzar ugari antolatu ziren, kasu askotan modu espontaneoan. Sentimendu orokorra, burua makurtzetik urrun, erasoaldi kontrainraultzaileari aurre egiteko eta iraultzaren norabidea zuzentzeko antolatzea izan zen. Falta den bakarra programa iraultzaile bat duen zuzendaritza da, langile klasea bateratu eta mobilizatu duena eta hau zapaldu guztien buruan jarriko duena.

Maila ekonomikoan, krisi ekonomikoak modu larrian areagotzen jarraitzen du (artikulu hau idazten den unean petrolio upela 27 dolarretara erori da), baina Gobernuaren proposamenak oraingoz Errentaren Zerga eta debito bankarioaren zerga berria sortzera mugatu dira. Honek ondasun handiei eragingo lieke, bai-



na, hala ere, neurri hauek ez dira inolaz ere nahikoak. Gasolinaren prezioa igotzeko aukera ere planteatu da berriro ere, baina bankuen eta enpresa handien jabego pribatuak jarraitzen duen bitartean neurri honek prezioen igoera orokortua bakarrik eragingo luke.

Badaude beste proposamen batzuk ere. Adibidez, “korporazio sozialistak” deitutakoak sortzea. Izen “polita” izan dezakeen arren, enpresa mixtoen (kapital publiko eta pribatua dutenak) garapena proposatzen du; edo Industriako Ministro berri Miguel Perez Abaden izendatzea, enpresari bolivartar autodenominatutakoen ordezkaria (erakunde patronalek ere gogotsu eman diote babesa izendapen honi, Fedecamaras kolpistak barne). Neurri hauek guztiak behar denaren aurkako norabidean doaz: harreman kapitalistak indartzen dituzte (eredu txinatarra jarraituz), ekonomia eta estatu sozialista bat eraiki beharrean.

Politika ekonomiko hauek amildegirantz daramate. Bankuen, lurren eta enpresen jabegoak kapitalisten eskuetan, eta Estatuak eta enpresa publikoek burokraziaren

kontrolpean jarraitzen duten bitartean, iraultzak ez du aurkituko irtenbiderik aurrean dituen arazoentzat.

Gauza bera gertatzen da maila politikoan. Hauteskunde ondoen oinarrietan dagoen giro kritikoari erantzun bat eman nahirik, Nicolas Madurok ministro gehienak aldatu eta parlamentu komunalaren garapena bezalako neurriak iragarri ditu. Teorian, parlamentu komunalean langile eta herri auzoetako komuna antolatuetako ordezkariak hartuko lukete, parte ondoen gobernuari proposamenak eramateko. Burgesiak gogor egin zuen neurri honen aurka helburua Batzar Nazional berria ez onartzea zela salatuz. Baina, orain arte behintzat, agintari bolivartarrek parlamentu komunalari buruz duten iritzia erakunde hau kontsultiboa bakarrik izatea da, eta ez langile eta herri boterea errealtate egingo duen benetako erakundea. Goitik datozen formula hauek, diskurtsoetatik haratago, ez dute asko balio mahai gainean dagoen mehatxu garrantzitsuari aurre egiteko. Batzar Nazional burges berriaren plan kontrairaultzaileak garaitzeko modu bakarra langileek eta

herriak ordezkari iraultzaile, hautagarri eta ordezkagarrien batzar nazionala eratzea da, sufritzen ditugun arazoei irtenbidea emango eta Estatu burgesa bukatuko duen programa aplikatzeko.

Botere politiko eta ekonomiko osoa langileen eskuetan jarri behar da

Venezuelako iraultzak bi alternatiba bakarrik ditu: edo botere osoa, benetan eta berehala, langileen eskuetara igarotzen da, banka eta enpresa nagusiak desjabetuz eta ustelkerian oinarritzen direnak eta burokratak depuratuz, edo iraultza garaitua izango da. Eta ez gara ari hauteskunde porrot simple bati buruz, maila altuagoko porrot bati buruz baizik. MUD koalizioa Miraflores Jauregira iristen bada, modu bakarra izango du bere programa aplikatzeko: langile klasea eta herria biolentziaz erreprimitzea.

Atzeranzko kontaketa hasi da. Posible da abenduaren 6ko hauteskundeetako emaitza txarra porrot erabakigarri bihurtzea saihestea, baina horretarako funtsezkoa da bene-

tako programa sozialista defendatzea. Azken hauteskunde hauen ondoren, kaleetan izandako mobilizazioek, bilerek eta ospatu diren batzarrek erakusten dute eskuinak botoetan lortutakoak ez duela adierazten oraindik kontrairaultzaren aldeko babes sendo eta masiboa, sortu diren kontraesanek masen sektore garrantzitsuetan garatutako nekea eta ondoeza baizik. Hondamendi ekonomikoaren eta burokraziaren ustelkeriaz gain, bost milioi pertsonen garbi utzi genuen ez dugula onartuko iraganera itzultzea borrokarik egin gabe. Baina, gainera, MUD koalizioari botoa eman zioten milioika pertsonen beren arazoak konpondu nahi dituzte eta errekuera ditzakegu, baldintza batekin: kapitalisten eta burokraten boterearekin amaituko duen eta herritar hauen guztien beharrak aseko dituen benetako politika iraultzailea aplikatu.

Erabat urgentea da benetako iraultza aurrera eramatea iraultza-ren barruan. Burokratismoan eta ustelkerian erori eta herriak lortutako posizioetan atzera egin duten zuzendaritzek ezin dute borroka honen buruan jarraitu. Beharrezkoa da PSUV eta CSBTko sektore klasistek, UNETeko sektore iraultzaileek eta Frente Nacional de Lucha de la Clase Trabajadora erakundeak (FNLCT) emergentziazko plan bat antolatzea iraultza-ren norabidea berreskuratzeke, langileek batzarrak eginez lantoki guztietan eta herri eta eskualde mailan, borroka programa

eztabaidatzeko langile ordezkarien herrialde mailako bilkuran amaituz. Baina aldi berean, beharrezkoa da ezker iraultzailearen indarrak biltzea, mugimendu chavistan korronte marxista indartsu bat eraikitzea. Hau da CMR aurrera eramaten ari den eginkizuna.

Denok eraso puntura! Atzera pausorik ez! Antolatu CMRn eta egin borroka programa sozialistaren alde mehatxu kontrairaultzaileari aurre egiteko.

1.- Herriaren bizi baldintza duinak lortzeko: soldatak igo inflazioa adina edo gehiago. Bankaren, monopolioen, enpresa estrategikoen eta latifundioen berehalako desjabetzea, ez burokratikoki kudeatzeko, baizik eta langile klaseak zuzentzeko hautagarri eta etengabe ordezkagarri diren ordezkarien bitartez. Hauen soldata ez litzateke izango langile kualifikatu batena baino altuagoa.

2.- Kanpo merkataritzaren estatu monopolioa. Inportatzea beharrezkoa den produktu guztiak gobernuak erosi beharko lituzke zuzenean mundu merkatuan, eta ondoren banaketa egin benetan justuak diren prezioetan. Estatu monopolio horrek ezin du egon masen kontrolpean ez dauden funtzionarioen eskuetan, langileen eta herriaren administraziopean eta kontrolpean baizik.

3.- Dolar bakar bat gehiago ez kapitalistentzat. Dibisa guztiak herrialdea industrializatzerara bideratu

behar dira langileek eta herriak berak demokratikoki landutako plan sozialistaren bitartez.

4.- Espekulazioaren eta lapurretaren aurka: kartzela espekulatzaileentzat. Inplikaturik dauden enpresari eta burokrata guztiak desjabetuak eta katzeleratuak izan behar dira. Arazoaren arduradunak kondenatu eta ez honen ondorioak sufritzen dituen herria.

5.- Botere ekonomiko eta politiko osoa langileentzat! Burokrazia ustelari ez! Ekonomia eta Estatua langile klasearen eta herriaren zuzendaritzapean egon behar dira hautagarriak eta uneoro ordezkagarriak diren kontseiluen bitartez! Burgesiak kontrolatzen duen Batzar Nazionalaren aurrean, lantokietan eta auzoetan aukeratutako langileen, nekazarien eta soldaduen Ordezkari Iraultzaileen Batzarra, programa iraultzailea aplikatzeko. PSUVeko ustel eta burokraten depurazioa. Langileak zapaltzen edo erreprimitzen dituzten enpresariak eta norbanakoak iraultza-ren alderditik kanpora.

6.- Kapitalismoa garaitzeko Amerika Latinako eta mundu osoko langile klaseari eta herriei deia ekintza iraultzailerako. Iraultza bolibartarrak langile internazionalismoaren eskutik lortuko du garaipena.

Informazio gehiago
www.euskalherriasozialista.net
web orrian:
Venezuela A6: oposizio
kontrairaultzailearen garaipena



Txile: Ikasle txiletarren borrokak unibertsitatea doakoa izatea lortu du

Borrokak merezi du, borrokak balio du!

Iazko abenduan Txileko Kongresuak hezkuntza erreforma berria onartu zuen. 2011n milioika gaztek hasi zituzten mobilizazio erraldoiak izan dira neurri berri horren arrazoia. Txileko gazteen borroka eredugarri bihurtu da mundu osoko gazteriarentzat.

IKASLE SINDIKATUA

Zalantzarik gabe, bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleen eskaera nagusienetako unibertsitatea doakoa izatea izan da. Hainbat hilabetez indartsu mobilizatu ziren, itxialdiekin eta ehunka mila pertsonen osatutako manifestazioekin. Herrialde osoko kaleak hartu zituzten.

Orain arte, gazte gehienentzat ezinezkoa izan da unibertsitateara joatea, unibertsitate tasak ordain ezinak izan baitira

langileen seme-alaba gehienentzat: urteko matrikulek batez beste 4.000 dolar balio zuten. Herrialde honetan, langile familiarako sektore pobreenek, 275 dolar inguruko diru sarrerak dituzte hilabetez; hau da, familia hauetako batek beren seme-alaba unibertsitateara bidali ahal izateko, familiako diru sarrera guztiak aurreztuz 15 hilabete behar zituen urte bateko matrikula ordaintzeko.

Milioika ikaslek antolatutako borroka hau oso azpimarragarria izan da. Gainera, gizartearen

elkartasun handia lortu du, eta langileen sektore garrantzitsuetako borrokekin elkartu izan dira. Adibidez, kobre-meatzariek: une hartan Pinocheten diktadura garaitik izandako greba garrantzitsuenak egiten ari ziren. Honi guztiari esker, ezkerreko hautagaiek presio handia jasan zuten. 2014an Michelle Bachelet Gobernuako presidentziara iritsi zen, aurretik egindako promesa bati esker, besteak beste: lau urteko agintaldia bukatu baino lehen unibertsitatearen doakotasuna %70era iristea.

Txileko goi-mailako hezkuntza sistema, diktaturaren oinordeko zuzena

2015. urtera arte indarrean egon den unibertsitate eredua Pinocheten diktaturak sortutakoa eta ordutik mantendutakoa izan



da. Unibertsitatea aldatzea beti izan da aldarrikapen sozial bat. Orain arteko sistema formalki Estatuak kudeatutakoa izan da, baina errealitatean sektore pribatuko hezkuntzak zuen gehiengoaren kontrola.

16 unibertsitate estatal bakarrik existitzen dira, eta bitartean 40 unibertsitate inguru daude. Hauen tartean, Consejo de Rectores de Universidades Chilenas deitutako erakundea dago. Honek, 25 unibertsitate tradizional biltzen ditu (80ko hamarkadako erreformak baino lehen sortutakoak), eta bertan unibertsitate estatalak eta pribatuak elkarbizitzen dira.

OCDE nazioarteko erakundearen arabera, Txileko unibertsitateak izan dira orain arte munduko unibertsitate matrikula garestienak zituztenak, bertako herritarren eros ahalmenarekin alderatuta. Egoera honen ondorioz, familia txiletarrek unibertsitate plazaren %75eko kostua hartu beharra zeukaten.

Harresi ekonomiko honek kanpoan uzten zuen sektore pobreenen gehiengoa. Aldi berean, zorpetze masiboa eta hipoteka unibertsitarioak eragiten zituen. Leporaino zorpetu beharra zeukaten euren seme-alabak unibertsitatara bidali nahi zituzten familiek. Hipoteka unibertsitario hauek erraz iristen ziren 20.000 dolarretara behin ikasketak amaitu ondoren, eta lanpostu bat aurkitu baino lehen. Bitartean, familia aberatsak ez zuten inolako arazorik beren seme-alabak unibertsitate onenetara bidaltzeko hauen errendimendu akademikoa oso zalantzarria izan arren.

Aberatsen diktadura bukaerara heldu da unibertsitatean

Onartu berri den erreformak berehalako neurriak eragingo ditu: 2016ko martxotik aurrera, unibertsitate estatal batean edo "Consejo de Rectores" deitutakoaren pribatu batean matrikulatzen diren ekonomikoki zailtasun gehienak dituzten ikasleen



%50ak (200.000 ikasle inguru) aukera izango du ikasturtea erabat dohain egiteko.

Lehen neurri hau areagotzen joango da datozen ikasturteetan, 2020an goi-mailako hezkuntza unibertsitarioa doakoa izatera iritsi arte. Gaur egungo Gobernuaren hitzen arabera, 2018an, berriro ere hauteskunde presidentzialak direnean, zailtasun ekonomiko handienak dituzten ikasleen %70a dohainik joan ahaliko da unibertsitatara.

Kalitatezko unibertsitate publiko eta doakoa! Hezkuntza eskubide bat da, ez negozio bat!

Denbora honetan guztian, eskui-na behin eta berriro saiatu da prozesu hau oztopatzen eta frenatzeko, baina gazterien mobilizazio ikusgarriek eskuinaren maniobra guztiek baino askoz indar

handiagoa erakutsi dute. Azkenean, Michelle Bacheleten gobernuak bere promesa bete behar izan du ikasleriaren mobilizazioen presioaren aurrean.

Berri hauek guztiak ospatu beharrekoak izan arren, beharrezkoa da jakitea eskuinak jarraitu egingo duela bere helburuekin: hezkuntza negozio bihurtzeko saiakera ez da amaituko. Baina zalantzarik gabe, Txileko adibideak erakusten du borroka dela gure eskubideak lortzeko modu bakarra, bai han, bai Euskal Herrian eta baita mundu osoan ere.

Txileko gazteriak erakusten du bidea!
Kalitatezko hezkuntza publiko eta doakoa langileen seme-alabentzat!
Borrokak merezi du, borrokak balio du!

Federiko Engels Fundazioaren berrargitalpen berria: V. I. Leninen ‘El imperialismo, fase superior del capitalismo’

1916ko udaberrian idatzi zuen Leninek marxismoaren klasiko bilakatu den testu hau. Bertan mundu mailako ekonomiaren garapenaren eta garaiko potentzia kapitalista nagusien arteko erlazio internazionalen ikuspegi orokor bat azaltzen du autoreak, XIX. mendeko azken mende laurdenetik mundu gerra hasi zen urtera arte, 1914. Idatzi honen helburua inperialismoa, funtsean, zertan datzan argitzea da, bere oinarri ekonomikoa ulertaraztea eta langileen abangoardia ideologikoki armatzea, burgesia nazional ezberdinek nahiz Bigarren Internazionalako buruzagi sozialdemokratek, bere dekadentzia politikoa, elikatzen zuten chauvinismoari aurre egiteko.



IKER OTERMIN

XX. mende hasieratik ekonomia kapitalistan izandako fenomeno berriak aztertzean, Leninek azpimarratzen du faktore garrantzitsuena lehiakortasunaren ordezkari monopolioaren agintea ezartzean datzala. Ekonomialari burgesek beren sistemaz egin ohi duten kontzeptzio idealizatuan “lehiakortasun askea” “lege natural” eta aldaezina izaten da, baina, hain zuzen ere, lehiakortasunak inplikatzeko duen ekoi-

zpen baliabideen garapen azkartuari esker, ekoizpenaren kontzentrazio ikaragarria gertatzen da (enpresa handiek txikiak irensten dituzte, merkaturak mantentzeko inbertsioak geroz eta handiagoak izaten dira, etab.) eta horrek ezinbestean monopolioa gailentzera darama. Ekoizpen adar bat enpresa gutxi batzuek kontrolaturik dagoen momentutik, hauek gai dira adosteko (eta besteei inposatzeko) ekoizpen kopuruak, prezioak, merkaturaren banaketa, etab. zein izango diren: “Jada ez gaude enpresa handien eta txikien arteko borroka lehiakor baten aurrean, (...) baizik eta monopolistek monopolioaren menpe jartzen ez diren guztiak itotzen dituztenean”.

Monopolioak eta kapital finantzarioa

Fase inperialistaren beste funtsezko ezaugarri bat sektore finantzarioaren paper hegemonikoa da. Bankuak ordainketetan bitartekari hutsen zeregina edukitzetik, bankaren kontzentrazio prozesu baten ondorioz, monopolio bihurtzera pasatzen dira: “bere eskuetan dute kapitalista guztiak ia kapital monetario guztia, eta baita ekoizpen baliabideen nahiz herrialde bateko edo hainbatetako lehen gaitetako iturrien zatirik handiena ere”. Modu horretan, ezagutu, kontrolatu eta erabaki ditzakete (besteak beste, beren mailegu politike-

kin), “gizarte guztiko operazio komertzialak eta industrialak”. Horrela sortzen da, beraz, bankaren eta industriaren arteko fusioa, non lehenengoa gailentzen den. Hori da kapital finantzarioaren eta oligarkia finantzarioaren jatorria, “bankuen eta enpresa industrial eta komertzial handien arteko lotura pertsonala” sortzen duena. Leninek garaiko ekonomialari burges bat aipatuz azaltzen duen bezala, “bankaren eta industriaren arteko ‘lotura pertsonala’ bi hauen eta gobernuaren artekoarekin osatzen da. Administrazio kontseiluetako postuak apropos ematen zaizkie izen handiko pertsonaiei, nahiz Estatuko funtzionario ohiei, hauek maila handian erraztu baititzaizkete autoritateekiko erlazioak”. Deskribapenak ezin du eguneratuagoa egon.

Munduaren banaketa potentzien artean

Kapitala proportzio erraldoietan metatzearen ondorioz, herrialderik garatuenetan kapital soberakin ikaragarria sortzen da. Soberakin hau irabazi bihurtzeko, kapitalen esportazioa erabakigarria izaten da: “kapitala esportatzeko beharra dago, herrialde gutxi batzuetan kapitalismoa jada ‘helduegia dagoelako’ eta kapitalak (...) ezin duelako aurkitu eremurik inbertsio ‘errentagarrietarako’”. Nahiz eta merkantzien trukea ez den desagertzen, “kapitalismo zaharraren ezaugarri nagusia, lehia askea erabat gailentzen zenean, merkantzien esportazioa zen. Kapitalismo modernoaren ezaugarri nagusia, non monopolioak agintzen baitu, kapitalen esportazioa da”.

Horiek dira hainbat potentziak munduaren banaketatik gauzatzen duten borroka gupidagabearen oinarri ekonomikoa. Nahiz eta XX. mende hasieran ez zen existitzen kolonizatze eremu berri posiblerik, Leninek seinalatzen du, hain zuzen

ere horregatik, herrialde inperialisten arteko borroka areagotu egiten zela, “etorkizunean soilik banaketa berriak bakarrik egon daitezkeelako, hau da, lurralde baten ‘jabe’ aldaketak, eta ez nagusirik ez duen lurralde bat ‘jabe’ bat edukitzera pasatzea. Modu horretan, gerrak, karrera armamentistikoa, zapalkuntza nazionala eta nazionalismo burgesaren bidez militarismoaren politikak justifikatzea kapitalismo monopolistaren funtsezko ezaugarriak dira, ez sistemaren hautazko ezaugarriak izan.

Liburuaren zati bat Kautskyren eta bere ultrainperialismoaren teoriaren aurka egitera bideraturik dago. Haren arabera, fase berri honetan monopolio eta inperialismo guztien fusioa lortuko litzateke bakar batean eta, beraz, gerrak ez lirateke beharrezkoak izango eta sistema egonkortzea lortuko litzateke. Modu horretan, iraultza sozialistaren beharra kolpe batez desagertuko litzateke. Leninek aurre egiten dio parez pare planteamendu horri, teoria eta praktika marxistarekin erabateko haustura gisa kalifikatzen du. Azaltzen du monopolioek ez dutela kompetentzia modu absolutuan kentzen, baizik eta “honen gainetik eta alboan existitzen direla, kontraesanak eta tirabira larriak eta handiak sortuz”. Hain zuzen ere, monopolioek eta kapital finantzarioak menderaturiko mundu mailako ekonomia batean, estatuz nazionalen babesa izanik, kompetentzia askoz ere suntsigarriagoa bihurtzen da, gizateriarentzat mehatxu izatera iritsi arte. Horren erakusgarri argia dira garai hartatik gertatu diren bi mundu gerrak eta etenik gabe piztu diren tokiko eta lurraldeetako gerra amaiezinak.

Dekadentzia eta trantsizio aroa

Inperialismoa kapitalismoaren fase berezi bat da, dekadentea, eta, Leninek dioen bezala, deskonposatzen ari den kapitalismo parasitarioaren fase honetan, irabaziak espekulazioaren bidez lortzeak pisu nagusia hartzen du. Liburua gaur idatzia dagoela dirudi; autorearen hitzetan, “irabazien gehiengoak intriga finantzarioen ‘jeinuuntzat’ izaten da”. Mundua potentzia mailagari gutxi batzuen eta gehiengoaren diren herrialde zordunen artean banatzen da. Herrialde atzeratuenen garapena bult-



zatzetik urrun, herrialde kapitalistekako kapital metatze ikaragarria, masen pobrezia betikotzeko eta menpekotasun erlazioak finkatzeko erabiltzen da; hauek kapitalismoaren existentziarako ezinbesteko baldintza dira; eta, azkenik, desintegrazio soziala sistemaren bihotzean bertan ere garatzen hasten da.

Mundu mailako ekonomian oligarkia parasitario honek duen agintea (gaur egun askoz ere larriagoa da orain dela mende bat baino), egonkortasun gehiago ematetik urrun, kaosa areagotzen du. Leninek azaltzen du etapa inperialistan sistemaren funtsezko kontraesana —ekoizpenaren izaera sozialaren eta jabetzearen izaera indibidualaren artean dagoena— gehiago areagotzen dela. Egungo krisia, 30eko hamarkadatik izan den handiena dena eta oraindik hondoa jo gabe dagoena, eredu argia da ikusteko nola gutxiengo higuinarriki aberats batek egoera katastrofiko batera eraman dezakeen gizartearen gehiengoak, eta baita ekoizpen baliabideak ere. Leninek, Marxen eta Engelsen oinarri-

zko ideiak gogoratuz, planteatzen du jabetza pribatua “edukiari ez dagoen estalkia dela”, hau da, ezin dela bateratu ekoizpen indarrek lortu duten garapenarekin.

Inperialismoaren beste funtsezko ezaugarri bat, ordea, “bestelako orden sozial berri baterantzko” trantsizio etapa bat izatean datza, kapitalismoaren hasierako faseko “erabateko lehia askearen” eta “erabateko sozializazioaren”, hau da, sistema sozialista baten artean. Horrela, beraz, etapa hau benetan gainditzeak ezin du izan atzera buelta bat historian, edota aurpegi gizatiarreko kapitalismo bat, garaiko politika burges txikiak eta oportunistak defendatzen zuen bezala, hori ezinezkoa baita. Ekoizpen baliabideak desjabetu behar dira, hauek gizartearen gehiengo zabalaren beharrek asetzeko helburura bideratzeko. Logikoki, trantsizio hau ez da automatikoa, masen antolakuntza kontzientea eta ekintza iraultzailea behar du kapitalistek gizartearen gainean ezartzen duten aginteari amaiera emateko.

Elkartasuna errefuxiatuekin!!

Gobernu europarren politika basati eta kriminalari ez!!

Komiteak sortu errefuxiatuen alde instituto eta unibertsitateetan!!



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA
Euskal Herriko aldizkari marxista



**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

**www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista**

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.**

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista